



## OHARRA

**HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE PUBLIKO INTEGRATUETAKO ZUZENDARIEN LANPOSTUAK IZENDAPEN ASKEZ BETETZEKO PROZEDURA.**

Eskaerak aurkezteko epea berriro hastea.

Lanbide Heziketako Sailburuordearen 2020ko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez (martxoaren 6ko EHAA), Hezkuntza Sailaren mendeko Lanbide Heziketako Ikastetxe Publiko Integratuetako zuzendarien lanpostuak izendapen askearen bidez betetzeko deialdia egin zen, eskabideak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko zela ezartzen zelarik.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri ostean, zeinaren bidez COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen baita, eskabideak aurkezteko epea eten egin zen, Errege Dekretu horren, edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen zuten unean berriz hasiko zela adieraziz.

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak jakinarazten du maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, zeinaren bidez martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera luzatu egiten baita (maiatzaren 23ko BOE), honen xedapen indargabetzaile bakarraren arabera, indargabetu egin dela, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria, administrazio epeak etenda uzten zituena.

Horrenbestez, **eskabideak aurkezteko epea berriro hasiko da 2020ko ekainaren 1etik 2020ko uztailaren 4ra arte.**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 29a

Nicolás Sagarzazu Alzua  
Plangintza eta Antolaketa Zuzendaria

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN